

# AZTERKETAK | 44

2022ko EKAINA



---

## ELAren proposamenak fiskalitate justu baterako

---

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



MANU ROBLES-ARANGIZ  
FUNDAZIOA

# ELAren proposamenak fiskalitate justu baterako

<b>0. Fiskalitatearen garrantzia.....</b>	<b>3</b>
<b>1. Fiskalitatearen testuingurua eta bilakaera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Fiskalitateari buruzko eztabaida.....</b>	<b>8</b>
2.1. Maila globalean.....	8
2.2. Estatua eta Hego Euskal Herria.....	9
<b>3. ELA-ren proposamenak .....</b>	<b>10</b>

## 0. FISKALITATEAREN GARRANTZIA

Zergak dira erakunde eta organismo publikoen finantzaketa-iturria. Zergarik gabe, ez dago diru-sarrerarik. Eta diru-sarrerarik gabe, ez dago gasturik. Beraz, argi dago horren araberakoa dela gastu publiko maila eta, hortaz, zerbitzu publikoak eta gizarte-prestazioak. Ez da ahaztu behar zergek, diru-bilketaren izaeraz gain, ezinbesteko zeregina ere badutela aberastasuna modu bidezkoagoaz banatzeko tresna gisa. Gaur egungo testuinguruan, non enpresak mozkin errekorrak izaten ari diren, hain zuzen ere tresna horrek orekatu behar du balantza, kapitalari gehiago ordainaraziz, desberdintasunak areagotzea saihesteko.

Txostenak hiru atal ditu: lehenengoan fiskalitatea ikuspegi historiko batetik aztertzen da, azken urteetako bilakaerari helduz. Bigarrean, zerga-sistemaren inguruko egungo eztabaidak aztertzen dira. Alde batetik, maila globalean planteatzen ari diren proposamenak aztertuko ditugu, eta, ondoren, espainiar estatuan gertatzen ari dena aztertuko dugu, gure lurraldean ere eragina duena. Azkenik, 11 neurri proposatzen dizkiegu Hego Euskal Herriko erakundeei, gehien dutenek gehiago ordainduko duten zerga-sistema progresiboagoa helburu. Neurri horiek, era berean, genero-arrakala fiskala ezabatzen lagunduko lukete; izan ere, emakumeek errenta txikiagoak dituzte, enplegutik datozenak gehienbat, eta kapital-errentetan gutxiago parte hartzen dute.

## 1. FISKALITATEAREN TESTUINGURUA ETA BILAKAERA


1930etik 1980ra, errentaren gaineko zergaren gehienezko tasa marjinala %78ko batez bestekoa izan zuen AEBk, eta %90etik gorakoa 1951tik 1963ra. Erresuma Batuan 1941 eta 1953 bitartean %98ra iritsi zen. Horren ondorioz, errenta eta aberastasunaren kontzentrazioak behera egin zuen urte horietan, eta horrek ere botere txikiagoa ekarri zuen aberatsentzat. Denbora asko igaro da ordutik. Egungo tasak, hainbeste kritika izan dutenak eta azken hilabeteetan gure inguruan hainbeste eztabaida piztu dutenak, askoz txikiagoak dira eta ez dute %50eko langa gainditzen. Eztabaida horiek, ondoren jorratuko direnak, askatasun indibidualaren ardatz dira, kolektiboaren ginetik. Adibide mediatikoenak youtuberrak dira; Andorrara joaten dira zerga gutxiago ordaintzeko helburu bakarrarekin.

80ko hamarkadan, Reaganek eta Thatcherrek gidatutako langile-klasearen aurkako ofentsiban, fiskalitatea klase dominantearen aldeko politika egiteko beste tresna bat izan zen. Kapitalismoaren aro berriarekin, lan-errentak pisua galtzen joan ziren kapital-errenten mesedetan, hein batean, zerga-sisteman izandako aldaketen ondorioz. Horrela aberastasunaren metaketa eta aurrekaririk gabeko desberdintasunaren areagotzea gertatu zen.

Fenomeno global horrek, ezin bestela izan, gure lurraldean ere izan zuen eragina. Azken hamarkadetan joera argia izan da EAEn eta Nafarroan: egindako erreformen helburua kapitaletik lortutako errentak murriztea izan da. Ildo horretan, ikusi ahal izan dugu PFEZren tasa altuenen murrizketa, kapital-errentetarako tarifa espezifiko eta askoz baxuagoa sortzea, tarteak murriztea, sozietateen gaineko zerga murriztea, ondare-zerga aldi baterako ezabatzea, BEZa igotzea eta tasak igotzea, eta abar.

Zifrek bilakaera hori berresten dute. Gainera, 2008ko krisiaz geroztik, joera hori are nabarmenagoa izan da. Zerga itunduen bilketaren bilakaera aztertuta, ondorio hauek atera ditzakegu:

### Nafarroako eta EAEko zerga itunduen bilketa 2007 eta 2021




Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Foru Ogasuna eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila oinarri hartuta

### Sozietateen gaineko zergaren bilketaren beherakada handia

2007. urtearekin alderatuta, sozietateen gaineko zergaren diru-sarrerak jaitsi egin dira nabarmen. EAEn, 2007. urtean 2.034 milioi euro biltzen ziren zerga horrengatik, eta 2021ean ia erdia izan da, zehazki 1.155 milioi (-%43). Enpresek gutxiago ordaintzen dutenaren beste sintoma bat da 2007an enpresek beren mozkinengatik ordaintzen zuten zergaren ehunekoa 14,8koa izan zela; aldiz, 2021ean erdia baino gutxiago izan da (%7,2).

Nafarroan ere gauza bera gertatzen da. Enpresek ordaindutakoa 593 milioitik 320ra igaro da, hau da, %46ko murrizketa eman da. Gaur egun, bilketa osoaren %7,7 baino ez dator enpresek beren mozkinengatik ordaintzen duten zergetatik, 2007an %17,6 izan zen.



Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Foru Ogasuna eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila oinarri hartuta


## Azterketak 44: ELAren proposamenak fiskalitate justu baterako

5. or

### Lan-errenten zergen bilketa handitu da

EAE, 2007an, 4.041 milioi bildu ziren lan-errentetatik; 2021ean, berriz, 5.639 milioi euro izan dira, hau da, %40 gehiago. Beraz, iaz bildutako diruaren %35,2 lan-errenten etekinetatik etorri da, eta 2007an, berriz, %29,3.

Nafarroan 946 milioi bildu ziren 2007an lan-errentetatik; 2021ean, ordea, 1.478 milioi, horrek esan nahi du %56ko gehikuntza eman dela. Ehunekoa EAEren ia berdina da; Nafarroan, %35,4 lan-errenten etekinetatik etorri dira; 2007an, berriz, proportzioa txikiagoa zen, %28koa, hain zuzen.




Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Foru Ogasuna eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila oinarri hartuta

### BEZaren bilketaren igoera

2010 eta 2012ko BEZaren erreformen ondorioz (tasak igotzea eragin zuena) eta susperraldi ekonomikoaren ondorioz (kontsumo pribatuaren igoeran ondorioak izan zituen), zerga horren bilketa igotzen hasi zen 2012an EAEan eta 2013an Nafarroan.

EAEan ikusten dugu BEZaren bilketa %29,3 igo dela 2007-2021 aldian, 4.037 milioi eurotatik 6.257 milioietara. Nafarroan, berriz, are gehiago; zehazki, BEZaren bilketaren igoera %41,2koa izan da, 891,5 milioi eurotatik 1.441,6 milioietara. BEZa eta zerga bereziak dira gehien biltzen dituzten zergak, EAEan eta Nafarroan guztizkoaren %48,7 eta %46,5 suposatzen dute.




Iturria: Azterketa Bulegoak egina, Nafarroako Foru Ogasuna eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila oinarri hartuta

## Enpresek %7,3 ordaintzen dute beren irabaziengatik

Sozietateen gaineko zergaren tasa efektibo erreala %7,3koa izan zen Bizkaian 2019an (datuak ditugun azken urtea), Ogasunak adierazitako tasatik oso urrun (%16,2) eta arauak finkatzen duenetik are urrunago (%24). Bizkaiko datuak baino ez badira ere, ez da aparteko fenomeno. Izan ere, Espainiako Zerga Agentziaren zifrak Bizkaikoen antzekoak dira. 2019ko kontu bateratuen arabera, enpresek beren irabazien %9,1 baino ez zuten ordaindu sozietateen gaineko zergan, eta tasa orokorra, berriz, %25ekoa da.

Argi dago gauza bat dela sozietateen gaineko zergaren tasa orokorra, beste bat zerga-oinarriaren arabeko tasa, eta, azkenik, enpresa baten mozkin errealen gaineko ehunekoa, aurrekoetatik oso urrun dagoena.

### Sozietateen zerga tasak Bizkaian



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

## Presio fiskala Europan baino 8,6 eta 6,5 puntu txikiagoa da

Europarekiko alderaketa egiten badugu, ikusi dezakegu EAE eta Nafarroa diru-bilketa/BPGren ehunekoa ilararen amaieran daudela. Nafarroan 2020an (kalkulua egin daitekeen azken urtea) %31,6koa izan zen, eta EAEn %33,7koa. Europar Batasuneko batez bestekoa %40,2an kokatu zen, hau da, bi lurraldeak baino 8,6 eta 6,5 puntu gorago. Danimarka eta Frantzia, esaterako, %46,8 eta %45,8 izan ziren, hurrenez hurren. Gainera kontuan hartu behar da 2020 urteko ehunekoa aurreko urteetako baino altuagoa dela bai Nafarroa eta EAEn kasuan. Horren arrazoia da BPG beste herrialde batzuek baino gehiago jeitsi zela 2020 urtean; beraz presio fiskalaren handitzea ez da diru bilketaren gehikuntzagatik.

Presio fiskala Europar Batasuneko batez bestekoarekin berdinduz gero, 4.640 milioi gehiago bilduko lirateke EAEn eta 1.746 milioi gehiago Nafarroan.

## Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala Europako azken postuetan

EAE eta Nafarroa Europa osoko azken postuetan egon ziren presio fiskal osoari dagokionez 2020 urtean, baina egoera are okerragoa da Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskalean. Sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoaren pisua BPGren %2,42ren baliokidea izan zen batez beste EBn 2020an, EAEn %1,46koa izan zen eta Nafarroan %1,27koa. Aplikaturako tasa baxuaren eta sozietateen gaineko zergan izandako iruzur fiskalaren ondorioz, zerga horren presio fiskala EBren atzealdean kokatu zen.

Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala Europako batez bestekoarekin berdintzeko, 691 milioi gehiago bildu beharko lirateke EAEn eta Nafarroan 235 milioi gehiago. Beraz, ondorioa argia da: tarte handia dago enpresei zergak igotzeko.



## Iruzur fiskalak bere horretan jarraitzen du

Gogoratu behar da sozietateen gaineko zergak enpresek eta sozietateek aitortu dituzten mozkinak baino ez dituela zergapetzen; beraz, etekinik ez dutenek edo galerak alegatzen dituztenek ez dute zerga horrengatik ordaintzen. Zerga honetan gertatzen den iruzurraren erakusgarri da, beste behin ere, 2018ko ekitaldian EAEn (eskuragarri dagoen azken datua), zerga horretan aitortutako enpresen %48,1ek galerak aitortu izana eta %19,1ek 6.000 eurotik beherako irabaziaz aitortu izana. Nafarroan, 2020an, 19.389 sozietatek aitortu behar izan zuten Sozietateen gaineko Zerga, eta horietatik guztietatik 5.897k zeroko aitortpena egin zuten (%30), eta 7.846k galerak aitortu zituzten (%40). Hau da, enpresen eta gainerako sozietateen %70ek ez zuten irabazirik aitortu edo galerak aitortu zituzten 2020an. Bistan da datu horiek ez dutela errealitatea islatzen.

Iruzur fiskalaren beste lagin bat PFEZn aitortutako batez besteko errentari dagokiona da. Euskal Ogasunaren azken Urteko Txosten Integratuaren arabera, 2018an lan-errentengatik aitortutako batez besteko errenta 25.509 eurokoa izan zen, eta jarduera ekonomikoengatik aitortutako batez besteko errenta 16.042 eurokoa, 9.500 euro inguru gutxiago. Nafarroan, lan-errentek batez beste 22.110 euro aitortu zuten 2020an; enpresa-errentek eta errenta profesionalek, berriz, 8.050 eta 10.362 euro, hurrenez hurren. Zifra horiek agerian uzten dute jarduera ekonomikoak aitortzen dituztenek iruzur fiskala egiten dutela, eta agerian uzten dute inspekzio handiagoaren beharra.

## 2. FISKALITATEARI BURUZKO EZTABAIDA

### 2.1. Maila globalean

Aurreko atalean azaldutakoak planeta osora estrapolatu daiteke. Izan ere, maila globalean are nabarmenagoa da. Jarduera ekonomikoa mugetatik haratago duten korporazio handiek ingeniari fiskala erabili izan dute beren mozkinengatik gutxi edota ezer ez ordaintzeko, paradisu fiskalak zergak saihesteko erabiltzen dituzten aberatsek bezala. Amazonek Europan duen filialak, adibidez, 2021ean ez zuen euro bakar bat ere ordaindu zergetan.

Hori gertatzen den bitartean, gizarte-premiak handitzen doaz, baita desberdintasunak ere. Horrengatik, covid-aren krisiari eta beste gai batzuei erantzuteko gastu publikoak gora egin duenez, gero eta premiazkoagoa da administrazio publikoen diru-sarrerak handitzea.

Hori ikusita, eta dagoen egoeraz jabetuta, multinazionaleri eta enpresa nazional handiei maila globalean %15eko gutxieneko zerga ezartzea eztabaidatzen ari dira. Joe Biden buru duen eta iaz G7ak eta ELGak adostu zuten proposamen hori, une honetan eztabaidatzen ari dira, zuzentarau baten bidez Europan sartzeko. Aurrera aterako balitz (beharrezkoa da herrialde guztiak alde egotea), EBko herrialdeek gutxienez %15eko zerga ezarri beharko liokete enpresa nazionalen edo multinazionalen zerga-oinarriari.

Hala ere, eta eman dezakeena gorabehera, harmonizazio-ahalegin horrek baditu zenbait hutsune, eta ez du esan nahi enpresa handiek diru-sarrera publikoetan ekarpen handiagoa egingo dutenik.

- Gutxieneko tasa efektiboa %15ekoa izango da, eta ez %25ekoa.
- Oraingoan, ez da neurri horrek diru-bilketan izango lukeen eraginaren ebaluaziorik egin, eta horrek pentsarazten du Zuzentaraua uste baino laxoagoa izango dela.
- Aplikazio-eremua urtean 750 milioi euroko fakturazioa duten enpresa multinazionalaleara mugatuko litzateke (herrialdeek enpresa nazionalak ere barne har ditzakete).



## Azterketak 44: ELAren proposamenak fiskalitate justu baterako

- Gainera, irabazi guztiak ez lirateke %15ean zergapetuko. Aktibo ukiezinen eta pertsonal-gastuen ehunekoak zerga-oinarritik kanpo egongo lirateke.
- Sektore batzuk salbuetsita egongo lirateke, hala nola inbertsio- eta pentsio-funtsak. Bankuen sektorea ere azpi-zergapetuta egongo litzateke.

9. or

Beste behin ere, neurriek eragin mugatua dute, eta ez dute diru-bilketaren egitura aldatuko. Enpresa askok ez dute aldaketarik jasango eta lan-errentek jarraituko dute zuzeneko zergen bilketari eusten.

Gutxieneko sozietate-zerga bat ezartzeaz gain, badira haratago joan nahi duten ahotsak. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) berak mozkin handiegiak dituzten enpresei zergak igotzea eskatu du, duela bi urte covid-19aren krisiari aurre egiteko egin zuen bezala. Ez da ahaztu behar pandemiak iraun duen bitartean eta azken hilabeteetan, enpresa batzuek mozkinak neurritz kanpo handitzen jarraitu dutela, eta krisia jasan duena langile klasea izan dela, hasieran enplegua galduz eta ondoren eros ahalmena murriztuta. 2021ean, Ibex35 indizeko enpresek inoizko mozkin handienak lortu dituzte, 60.000 milioi euro guztira. Ibex indizearen kupulak aurreko urtean baino %20 gehiago irabazi du. Gainera, pandemiari eta energia-krisiari aurre egiteko laguntza asko enprezentzat izan dira.

Ez da zentzugabea eskatzea bidegabeki besteen kontura aberasten ari direnek askoz ekarpen handiagoa egin behar izatea bidezko zerga-sistema bat izateko. Hala ere, gehiegizko onurak zergapetzeko zehaztasunik ez dagoenez, zaila da zentzu horretan benetako neurriak hartzea.

### 2.2. Estatua eta Hego Euskal Herria

Adierazitako testuingurua gorabehera, azken hilabeteotan eskuina zergak jaisteko kanpaina eten-gabea egiten ari da, bai Estatuan, bai gure lurraldean. Kanpaina honen puntan Madrilgo dumping fiskala dago, Ayuso duela buru. Hala ere, Feijoo PPko buruzagi berria ez da atzean geratzen zergen jaitsieraren diskurtsoa zabaltzen. PPK proposatutako neurriak eta eskumena duten esparruetan gauzatu direnak ildo horretatik joan dira: zerga-jaitsiera, aberatsen mesedetan.

Gure lurraldean, praktikan, eskuinaren politika aplikatzen ari da. Duela aste gutxi, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ahaldun nagusiek ziurtatu zuten beren eskumen nagusia, hots, fiskalitatea, egoera ekonomikoari aurre egiteko erabiliko zutela. Hala ere, covid-19aren krisiari aurre egiteko neurriekin egin zuten bezala, Ukrainako gerraren aitzakian hainbat neurri iragarri dituzte, hala nola 165 milioi euroko balioa duten zergak atzeratzea edo murriztea (120 milioi zerga-ordaintzen geroratzea eta 45 milioi zerga-murrizketa).

Nafarroan egoera antzekoa da. Nafarroako Gobernuak oraindik ez du patronalaren interesen aurka doan neurririk hartu zerga arloan, Barcinaren garaiko fiskalitate berarekin jarraitzen dugun bitartean. 2021. urtearen amaieran gutxieneko erreforma fiskal bat egin zen, PFEZn garrantzi gutxiko neurri batzuekin eta mandatu nagusi batekin: sozietateen gaineko zerga ez ukitzea. Azken asteetan, sozietateen gaineko zergan, aparteko etekinen berrinbertsioari heltzeko epea luzatu da; enpresei abantaila fiskalak ematen zaizkie energia-krisiaren eragina leuntzeko, besteak beste.

Badirudi Hego Euskal Herriko erakundeek ez dutela zerikusirik sozietateen gutxieneko zergari edo gehiegizko irabaziei ezarritako zergari buruz mundu mailan ematen ari den eztabaidarekin. Eta ez da, hain zuzen, gure lurraldeko enpresek irabazirik izan ez dutelako. 2021ean, Iberdrolak 3.885 milioi euroko mozkinak izan zituen, eta Ignacio Sánchez Galánek 13,2 milioikoak. Hala ere, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak adierazi du ziurgabetasun garai honetan ez dela garaia egiturazko zerga-erreformarik ekiteko. EAEko erakundeek, Nafarroakoek bezala, berriro erakusten dute Madrilek fiskalitatean dituen jarretatik gertuago daudela.

Hala ere, patronalari ez zaio nahikoa iruditu neurri horiek hartu izana, ez zaio nahikoa iruditzen Europa osoko zergarik txikienetako bat ordaintzea, ezta botere publikoek dena eta gehiago ematea ere. Eta ez da izan nahikoa beren poltsikoari batere eragiten ez dien lan-erreforma bat egitea. Horren erakusgarri da patronala, orain Zedarriak foroa bozgorailu duena (EAEn negozio-bolumen handiena duten enpresetako hainbat presidentek eta kontseilarik osatua), lerrokatu egin dela zergen jaitsiera eskatzen dutenekin (ezin bestela izan). Horien arabera, euskal enpresek jada ez dute lidergo-jarrerarik, eta etorkizunari begira, EAEk beste lurraldeekin alderatuta puncha galdu duela argudiatzen dute, eta kapitalari zergak gehiago jaitea proposatzen dute.

Argi dago patronalaren helburu bakarra irabaziak oraindik gehiago handitzean oinarritzen dela. Horretarako, bi formula dituzte. Alde batetik, soldaten aurkako erasoaldia, urteak daramatzana gertatzen, baina inflazio handiko garai honetan are gehiago areagotzen dena. Bestetik, zergen jaitsiera, mozkinen marjina handitzea dakarrena. Bi formulak langile klasearen interesen aurkako antagonismoan kokatzen dira. Lehenengoak soldatapeko langile-klaseari eragiten dio zuzenean, eta bigarrenak, zeharka, herri-klaseei, administrazioek diru-bilketa txikiagoa izaten baitute.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da erasoaldi neoliberal berri honi aurre egitea. Era horretan, ezinbestekoa da pedagogia egitea eta zergak igotzeko eta jaisteko eztabaida faltsua desmuntatzea. Kontua da fiskalitate nahikoa eta progresiboa izatea, gehien dutenek ekarpen handiagoa egin dezaten. Gogora dezagun, egungo testuinguruan eskuineko alderdiek zergen jaitsiera orokorraren alde egin arren, haiek gobernatu dutenean igo egin dituztela, bitxia bada ere, BEZa, Ondarearen Gaineko Zerga (OHZ) eta beste tasa ez-progresibo batzuk. Beraz, ezinbestekoa da bereiztea zer zergak eragiten duten oro har eta zeintzuk egiten duten modu lokalizatuan. Ildo horretan, eta esan bezala, ELA gehien dutenei, enpresei eta kapitalari zergak igotzearen alde dago, bai eta herritarrentzako oinarritzko ondasun edo zerbitzuei eragiten dieten zenbait zerga zuzen edo tasa murriztearen alde ere. Zentzu horretan, hurrengo atalean, zerga-politikari buruz egiten ditugun 11 proposamenak aipatuko ditugu.

### 3. ELA-REN PROPOSAMENAK

Zerga politikan eskumena duten administrazioek ahalbidetu dute zerga-sistema gero eta bidegabeagoa izatea. Horregatik, instituzioak interpelatu behar ditugu, aldaketa beharrezkoa delako. Ildo horretan, ELAk azken hilabete eta urteetan mahai gainean jarri dituen proposamenak berresten ditu: zerga-erreforma bat beharrezkoa da, enpresen mozkinengatik, aberastasunagatik eta errenta altuengatik ordaindu beharreko zergen igoera nabarmena barne hartuko duena (COVID-19aren osasun, ekonomia eta gizarte krisiari aurre egiteko sindikatuak iaz egindako proposamenen ildotik). Zehazki, ELAk honako neurri hauek planteatzen ditu, Foru Aldundiek horiek gauzatzeko erabateko eskumena dutelarik.

#### PFEZ

##### 1. Errenta handiei zerga-tasak gehitzea eta tartek handitzea

Azken urteetako erreformen ondorioz, zerga ez da lehen bezain progresiboa. Horregatik, azken urteetan onartutako beherapenak irauli behar dira, tasa horiek izugarri murriztu baitira %49ko gehieneko tasaraino, tartek ere murriztuz. Beharrezkoa da gehieneko tasa %60raino igotzea, duela zenbait urte bezala.

## **2. Tarifaren dualtasuna ezabatzea**

PFEZk desberdin zergapetzen ditu errenta orokorra (batez ere lan-errentak) eta aurrezki-errenta (dibidenduak, interesak, etab.). Errenta orokorrak %49ko gehieneko tasa du, eta kapital-errentek, berriz, %25eko gehieneko tasa. Errenten sailkapen dual horrek eragin erregresiboa du, kapitalaren errenten tratamenduari mesede egiten baitio.

Horregatik, errenta guztiak zergaren taula orokorraren mende jarri behar dira, kapitalari aplikatzen zaion tarifa espezifikoa kenduz.

## **3. PFEZaren deflaktazioa**

Lan errenten igoera KPlaren oso azpitik daude, eta horrek erosteko ahalmena nabarmen murriztea eragiten ari da. Baina, gainera, soldata-igoera horiek jauzi bat eragiten dute zerga-tasen eskalan, eta, horren ondorioz, igo egiten dira langileentzako zergak. Hau da, eros ahalmena galtzen da eta, gainera, zerga gehiago ordaintzen dira. Errentaren murrizketa bikoitz hori saihesteko, irtenbide bat tartek inflaziora egokitzea da, hau da, deflaktazioa.

Illo horretan, PFEZak KPlaren arabeko deflaktazio-mekanismo automatiko bat izatea proposatzen dugu, urtero prezioen aldakuntza kontuan hartuko duena.

## **4. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen eta pentsio-planen tributazioa aldatzea**

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei eta pentsio-planari ekarpenak egiten dizkieten pertsonak beren zerga-oinarria murriztuta ikusten dute PFEZn, eta horrek zergaren ordainketa gutxitzea dakar. Hala ere, tresna horiek ez daude pertsona guztien eskura, errenta txikienek ez baitute horrelako ekarpenak egiteko adina aurrezteko ahalmenik. Honek tresna hauek erregresibo bihurtzen ditu.

Nolanahi ere, gizarte-kotizazioek eta pentsio publikoek baino tratamendu txarragoa izan behar dute. Eta enplegu-erakundeen tratamenduak banakakoena baino hobea izan behar du. Gainera, kapital-erreskateari ematen zaion tratu pribilegiatua ezabatu behar da, pentsio-osagarria denaren aurka doalako.

## **SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA**

### **5. Ekitaldiko mozkinen %25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, salbuespenik gabe**

Adierazi dugunez, egindako erreformen ondorioz, gero eta gutxiago biltzen da sozietateen gaineko zergaren bidez. Gutxieneko tasa bat jarri behar da, %25ekoa, zeina igotzen joango den enpresaren tamainaren, etekinen, kutsaduraren eta abarren arabera.

Modu honetan 2.300 milioi inguru bildu ahalko lirateke EAEn eta 1.200 milioi Nafarroan.

### **6. Zerga-kenkariak eta -pizgarriak eta zerga-ingeniaritza ezabatzea**

Dagoeneko salatu dugu sozietateen gaineko zergaren zerga-tasa %7,3koa dela. Eta hori zerga-sistemaren konfigurazioaren ondorio da, tasa murrizteko aukera ematen baitu, ingeniaritza fiskalari esker.

Nafarroako Gobernurako adituen batzorde batek egindako txosten batean frogatuta geratu da sozietateen gaineko zergaren pizgarri fiskal asko ez direla eraginkorrak eta, gainera, ez dela horien eragina ebaluatzen. Adibidez, Nafarroako enpresek enplegua sortzeko kenkari bat baliatu dute lanpostuak gehitzen ari ez zirenean. Beraz, enpresek ordaintzen duten tasa hain txikia izatea ahalbidetzen duen kenkari oro ezabatu behar da.

### **7. Errekargu berezi bat ezartzea, 2021eko gehiegizko mozkinen %50eko gutxieneakoaren baliokidea.**

Inflazio handiko eta bitzita garestitzen ari den testuinguruan, enpresa asko aparteko irabaziak lortzen ari dira biztanleriaren gehiengo txirotzearen kontura. Beraz, bidezkoa da enpresek gehiago ordaintzea. Fiskalitate justu baten alde borrokatzeko susmagarriak ez diren erakundeak, Nazioarteko Diru Funtsa kasu, zentzu horretan neurriak bultzatzearen alde daude.

Horregatik, ELAk proposatzen du irabazien gaineko ehuneko 50eko zerga ezartzea ustekabeko irabaziei. Horregatik, ELAk proposatzen du gutxienez ehuneko 50eko zerga ezartzea enpresen gehiegizko irabazien gainean.

### **8. Mozkinak (eta, beraz, diru-sarrera eta gastu errealak) sortzen diren lurraldean aitortzera behartzea**

Enpresa batzuek, zergen ordainketa aurrezteko, ingeniari-tz fiskala erabiltzen dute zerga-tasa txikiagoa duten hirugarren herrialdeetan deklaratzeko. Ezinbestekoa da sortutako mozkinak sortzen diren lurraldean ordaintzea.

## **ONDAREAREN GAINEKO ZERGA**

### **9. %1etik %10era bitarteko errekaru espezifiko ezartzea**

Ondarearen gaineko zergak aberastasunaren banaketa bidezkoagoa sustatu behar du, ondare handiak dituzten pertsonak zergapetuta. Hala ere, beti zalantzan dagoen zerga da, besteak beste, kapitalak hura ezabatzen saiatzeko egiten duen presioagatik. Ez da gauza bera gertatzen ondareari egindako beste zerga batzuekin, adibidez OHZrekin, biztanleriaren gehiengoari eragiten diona.

Txosten honetan ikusi ahal izan dugunez, langile-klasearen eta errenta altuenen arteko desberdintasuna etengabe handitzen ari da. Gainera, COVID-19aren krisiak eta ondorengo inflazio handiko egoerak prozesu hori bizkortu du.

Gero eta handiagoa den desberdintasun horren aurrean, bidezkoa da ondarearen gaineko zergan errekaru bat ezartzea, gehien dutenei eragingo diena. Horrela, 2.000 milioi bilduko lirateke EAEn eta 500 Nafarroan.

### **10. Zergaren tarifa bikoiztea**

Ez da ahaztu behar ondarearen gaineko zergak ondare handien jabetza zergapetzen duela, eta ez diola biztanleriaren gehiengoari eragiten. 700.000 eta 800.000 euro arteko ondarea duten pertsonak ordaintzen dute (ohiko etxebizitza kontuan hartu gabe, 300.000 euro arte salbuetsita baitago), Foru Aldundiaren arabera. EAEn, 2018an, zerga-oinarriaren gaineko ondare-zergaren batez besteko tasa %0,39 izan zen, eta 6.400.000 eurotik gorako errentek soilik %0,64ko tasa efektiboa izan zuten.

## Azterketak 44: ELAren proposamenak fiskalitate justu baterako

Nafarroan, 2020. urtean, zerga honen batez-besteko tasa %0,32koa izan zen eta 5.000.000 eurotik gorako errentek %0,7 tasa efektiboa ordaindu zuten.

Ondarearen gaineko zerga tresna egokia izan daiteke, batetik, PFEZn ikusi dugun kapitalaren errenten gaineko desoreka zuzentzeko eta, bestetik, aberastasunaren kontzentrazioa gutxi bartzuen eskuetan murrizteko. Ez da ahaztu behar zergek, diru-bilketaren izaeraz gain, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ere dutela helburu.

Arrazoi horiengatik, ELAk proposatzen du zergaren tarifa bikoiztea aberastasuna modu bidezkoagoan banatzeko, errenta altuek eta ondare handiek ekarpen handiagoa egin dezaten.

13. or

### IRUZUR FISKALA

#### 11. Zerga-iruzurraren aurkako borrokarako zuzkidura handitzea

Iruzur fiskalaren aurkako borroka funtsezko gaia da, politika jakin batzuk justifikatzeko erabili ohi den argudioaren falazia erakusten duena, hau da, ez da diru gehiago izaten, eta ezin da gehiago egin dauden baliabideekin. ELAk, hain zuzen ere, ogasunei baliabide nahikoak ematea eskatzen du, preskripzio-aldian soldatakoak ez diren errenta guztiak ikuskatu ahal izateko. Horrek esan nahi du gehienez 4 urteko epean enpresa guztiak ikuskatu behar direla, baita kapital-errentak eta jarduera ekonomikoak ere.

